

## GETXO / Irakurritz, lagunduz

**Bigarren eskuko liburuak salduko dira Getxon, eta dirua lankidetza proiektu baterako izango da**

Maddi Ibaibarriaga Bilbo

Bertako Liburutegi Zerbitzuak antolatuta, Bigarren Eskuko Liburu Azoka zabalik dago Getxon. Algortako Geltokia plazan egingo dute, gaurtik larunbatera bitartean.

Aurten, hirugarren urtez egingo dute ekitaldia. Liburuek prezio sinbolikoak izango dituzte, euro batetik hasi eta hortik gorakoak, eta azokan bildutako dirua lankidetza proiektu batean erabiliko dute.

Iaz 9.000 liburu inguru saldu zituzten azokan. Aurten, berriz, 12.000 liburu inguru jarriko dira salgai, horietatik gehienak jendeak liburutegiei emandakoak. Etxeko liburuak liburutegira eramandakoan, banan-banan aztertzen dituzte, liburutegien bilduman zeintzuk gorde daitezkeen ikusteko. Han gordeko ez diren liburuak salgai jartzen dituzte Bigarren Eskuko Azokan, Getxoko lau udal liburutegietako garbiketan baztertutako aleekin batera. Horrela, jendeak emandako liburuak beste batzuek irakurri ahal izateko aukera zabaltzen da.

Azoka gaurtik hilaren 28ra arte egongo da irekita, goizean 12:00etatik 14:00etara eta arratsaldean 17:00etatik 21:00etara. Dena den, bihar arratsaldean baino ez da zabalik egongo.